



ZALAPARTAK

ZENBAT eta zalaparta geyago atera, orduban eta arrazoi geyago daukagula iduritzen zaigu.

Ojuik aundiyena ateratzen duna da, bestien gain gelditzen dana.

Ez da aintzakotzat artzen isilik dagona.

Zalaparta aundiya ateratzen duna, ori da gizona.

Gaurko eguneko legia ori da. Zalaparta, zalaparta bese gauza guzizien gañetik.

Orrengatik, beste gai guzizien gain, eresia, *musika*, maite degu.

Grezia'tarrak gorputzaren indarra ta edertasuna nai izaten zuten, eta ortarako zeuzkaten jostaketa bikañak, portitzak.

Guk ordia, zalaparta nai degu, ta orrengatik gure jostaketik atseginena eresia, *musika*, da.

Ta ez esan eresia ez dala zalaparta, soñua ez dala.

Galdetu zayozute gorrai ta azkar esango dizute.

Eresiak entzuteko belarrik biar dira, pintatzalleen lanak ikusteko begiyak bezela.

Gorrak ez dakite eresia zer dan; baña soñua eta zalaparta dala bai.

¿Zer esango ote dute gorrak, zenbait gizon eta emakume aboa zabalik imintziyoka ikusten dituztenian?

Euliyak arrapatzen ari dirala edo alakoren bat.

Ludian guziya arrokeriya besterik ez da, esan oi zan lengo sasoyetan. Ludia zalaparta utza da, esan leike gaurko egunian.

Katubak umiak egin ditubela, edo ausokoak cherrikiyak bigaldu dizkigutela; beriala jakiñak dira oju, deadar, karraşi, iskanbilla neurri-rikgabekoak.

Eta askotan berriz, ez degu naikoa izaten, gere artian arrantzaka ariyakin. Ez; zabaltzen ditugu leyuak, kanpokuak entzun ditzaten gure marruak.

¿Nola bada? Egazti bat jan biar badegu, ez digu onik egingo inguruko guztiyak baditugula jakin artian; ta aupa ta irrintzi, ez gera geldituko auso guzietan zabaldu arte, egakuak pill pill daukazkigula gure zukaldian.

Zalaparta, zalaparta beti.

Negar egin biar badegu, danak jakin dezatela. Isileko malkuak alperrikakoak bai dira.

Algara berriz, baztar guzietan entzungo dan erakua.

Gaur orla gera. Bat ezkontzen bada: *pin*, *pan*; iltzen bada: pun, pun.

Beti zalaparta. Ala jayotzian, nola obiratzian. Karrasika jayotzen gera, ta iltzerakoan karraši tartian iltzen gera.

Jayotzerakoan geronek karraši egiten degu. Iltzerakoan bestiak gure orde. Bañan beti, karraši.

Besteen karraši oyek, ¿egiyazkuak ote dira? ¡Nork daki!

Lengo sasoi zarretan, karrašigilliak edo negargilliak diru truk izaten ziran.

Orain onenbesteko bat gatik atorra bat edo chapel bat egiten diguten bezela, orduan negar egiten zuten.

Diru guchirekin, negar chikiya; diru askorekin baztarrak gortu azitzeko erakua.

Ez dago gaur orlakorik. ¿Baña musu-truk negar egiten ote da orain?

Orra or korapillo bat nik askatu nai ez detana.

Nolanai dala ere negar, karraši edo zalaparta besterik ez daukagu jayotzetik obi'ra bitartian.

Zalaparta zalapartaren gañian.

Eta orrenbesterekin isiltzera nua, esan ez dezazuten neronek ere zalaparta geicho dabilkitela.

KAITANO

